

URTEKO MEMORIA 2014





EDUKIAK

- 03 Zuzendari nagusiaren mezua
- 06 2014. urteko memoria zifratan
- 08 Hazkunde globala
- 10 Dibertsifikazio industrialaren emaitza diren enpresak
- 12 Mugarri garrantzitsuak
- 14 Marka
- 17 Erantzukizun sozial korporatiboa



Taldeak markaren, teknologiaren eta iraunkortasunaren aldeko apustua egiten du



Irizar Taldeko Zuzendari Nagusiaren mezua

125 urte eta inoiz baino sendo eta gazteago

Joan den 2014an Irizarrek bere lehen 125 urteak bete ditu Gure urteurrenaz harro gozatu ahal izan dugu, sendotasun eta hazkunde momentu batean.

Irizarrek 1889an ekin zion bere bideari, gurdi eta diligenzietarako gurpilak eginez, eta joan den mendeko 20ko hamarkadan hasi zen autokarretarako karrozeriak egiten. Lehendabiziko 74 urteetan familia enpresa moduan lan egin eta gero -izena eman zion familiaren jabetzapean-, 1963an elkarte kooperatibo bihurtu zen, eta horrela mantendu da gaur egun arte.

1995etik 2005era arteko hamarkadan nazioartekotze prozesu bat garatu zuen, eta horrek bere emaitzarik onenak eman ditu, azken urteetan bezeroengana hurbiltzeko landutako estrategiari esker

2009. urtean iraultza estrategikoa egin zen eta Taldea industrialki dibertsifikatu zen, krisi beteetan sendotasunez hazi zen, marka produktu propioekin indartu zen eta bere teknologia biderkatu zen, I+G zentro propioarekin

Inoiz baino sendo eta indartsuago, Irizar gaur egun Talde indartsua da, geografikoki dibertsifikatua eta industrialki etengabeko hazkundera duena; markaren, teknologiaren eta iraunkortasunaren alde irmo egiten duena, eta produktu propioen alde, bai autokar eta autobus elektrikoetan, bai presentzia

duen sektoreetako gainerako produktuetan. Munduan banatuta dauden bost autokar lantegik osatutako Taldea, gainera, beste bost konpainia ere badituena, bere dibertsifikazio industrialaren emaitza gisa, baita Zentro Teknologiko bat ere, epe luzera begira dagoena, ikerketa aplikatuaren prozesuan eta produktu eta sistema propioen garapenean oinarrituta.

Gaur egungo Irizar taldea 125 urte horietako guztietako bidearen emaitza da, pertsona askoren egikera onaren emaitza, sortzailearengandik hasita, orain garenaren zimenduak sortu zituztenen emaitza. Une honetan horiek guztiak gogoratu nahi ditut, eta gure proiektuari egindako ekarpenagatik eskerak eman, bihotzez.

2014. urtea, gainera, oso bizia izan da autokarren jardura industrialari dagokionez, batez ere Ormaiztegi lantegian. 1.100 autokar ekoizteaz gain, horien %50 Europako bezeroei zuzenduta, Irizar i3 Low Entry modeloaren lehenengo serieak fabrikatu ditugu, eskuineko zein ezkerreko gidaritzan, eta Estatu Batuetarako autokarren lehen prototipoa ekoitzi dugu.

Eta Taldearen lehena eta geroa markatuko dituen mugarri handi moduan, lehendabiziko hiriko autobus elektrikoak entregatu ditugu Donostia eta Bartzelonan. Nabarmendu beharreko beste alderdi bat I+Gko jardura da. Taldean orain arte sekula landutako proiekturik anbiziotsuenak lantzen ari gara, eta emaitzak datozen hiru urteetan ikusi ahal izango dira Beti bezala, ez dut gure bezero eta laguntzaileen lankidetzaz ahaztu nahi, eta horiei bereziki ematen dizkiegu eskerrak guran jarritako konfiantzagatik.

José Manuel Orcasitas
Irizar Taldeko Zuzendari Nagusia



2014. URTEKO MEMORIA ZIFRATAN

Sortutako aberastasuna eta lana

Salmentak

Aktiboa


Fondo propioak



6

URTEKO MEMORIA 2014


Pertsona kopurua



Irizar Taldeak guztira 535 milioi euroko fakturazio batuarekin itxi du urtea, horietatik %82 esportazioko merkatuetan lortuta.

2014. urtea oso urte bizia izan da, eta aurreko urteetatik zeterren hazkundearen parametroak murriztu egin dira, batez ere gorabidean dauden herrialdeen ekonomiak hazkunde urriak izan dituelako

Mila euro




Krisian zehar atzerriko lantegiek bultzatu dute Taldearen hazkundera, batez ere Brasilek eta Mexikok, baina aurten joera aldatu egin da, eta Irizar Ormaiztegi izan da gehien hazi eta gorabidean dauden herrialdeen gainbehera konpentsatu duena.



7

URTEKO MEMORIA 2014


Mila euro



Guztira, 2014. urtean atzerriko lantegiek Taldearen salmenta guztien %42 egin dituzte, aurreko urtean %47 izanik; eta Ormaiztegi salmentak, berriz, guztien %38 izan dira, aurreko urtean %33 izanik. Taldeko gainerako konpainiek fakturazioaren gainerako %20a eman dute.

Autokarren produkzioari dagokionez, talde osoan 3.000 unitate autokar ekoitzi ditugu "Premium" seriean, eta horietatik 1.100 Ormaiztegi produkzioakoak dira, guztizkoaren %36.

Mila euro



Inbertsioetan ere urte bizia izan da, eta 20 milioi eurora iritsi gara, bai aktiboetako inbertsioetan bai I+G proiektuetan.

Hazkunde globala

Autokar enpresak



Irizar Ormaiztegi

Aurten Irizar Ormaiztegin autobusen ekoizpenean hazkundera aipatu behar dugu berriro ere: hazkundera %15koa izan da aurreko urtearekiko, eta ia %15 hazi zen 2012arekiko. Eta %47ko merkatu kuota lortu dugu Espainian, Irizarren historiako kuotarik handiena. Arrazoi nagusiak dira, alde batek, produkzio unitateak gehiagotzea, bai marka propioko autokarretan bai konbentzionaletan, eta, bestetik, autokarrek ekipamendu hobeak dituzte Europako merkatuen eskaerak asetzeko.



Gainera, Irizarren 125. urteurrenarekin bat eginda, Gipuzkoan dugun egoitza zentralerako instalazio produktiboak eta zerbitzuko instalazio berriak inauguratu dira: diseinu zentroa, gune korporatiboa, I+G eraikina eta autokarrak entregatzeko eraikina, eta horri gehitzen bazaio kanpoko komunikazioaren arloan egindako ahalegina, emaitza da Taldearen irudian jauzi handia eman dela, onenen artean posizionatzeko asmoarekin.

Irudiaren hobekuntza hori, kalitatearen eta zerbitzuaren hobekuntzekin batera, gure marka indartzeko aukera ematen ari zaigu, eta datorren urteari baikortasunez begiratzeko aukera, autokar integralen fabrikazioa bikoizteko eta Estatu Batuetako lehen unitateak zerbitzatzeko hasteko.

Ormaiztegiko egoitzan hazkundera finkatzearen ondorioz, langile taldea ia %10 hazi dugu modu egonkorrean, 63 pertsona gehituta, horietatik 46 goi mailako prestakuntza zikloetakoak izanik eta 17 goi mailako lizentziadunak.

Irizar Mexico



Merkatua %20 inguru uzkurdu da, batez ere gobernu talde berriak egindako erreformengatik.

Hori horrela izanik ere, Irizar marka oso indartsua da merkatu horretan, eta autokarrak herrialdeko errentagarri eta aurreratuentzat jotzen dira. Irizarrek mexikar merkatuko lider zalantzagabe izaten jarraitzen du, %50 baino gehiagoko kuotarekin.

Irizar Brasil

Brasilen, bertako merkatua %40 jaitsi da unitateei dagokienez, eta Irizarren estrategia izan da Premium segmentuan bere posizionamendua mantentzea eta merkatu nagusietarako esportazioa bultzatzea.

Aurten Irizar i6 modeloak lortutako arrakastak bultzada handia eman die Brasilgo salmentei eta Irizarrek Sao Pauloko estatuan duen lantegitik hornitzen dituen herrialdeetan egiten direnei.

Barne merkatuan, herrialdeko operadore nagusien artean sartzea ahalbidetu dio Irizarri, horiek baloratu egin baitute produktu honen bereizgarria lehiakide nagusien aurrean.

Irizarren kuota %50etik gora dago Txileko meatzaritzaren sektorerako, bera izanik zorroztza kalitate eta segurtasunari dagokionez, eta Irizar i6k lortu duen onarpenak baikortasuna dakar etorkizun hurbilean lortu daitezkeen kuotei begira.

Txilek Brasilgo lantegiak egiten dituen autokarren produkzioaren %25 bereganatzen du.

Irizar Maroc



Urtea oso ona izan da Herrialdeko luxuzko autokarren merkatua asetzeko autokarrak fabrikatzen jarraitu dugu, eta ia %100eko merkatu kuota mantentzen jarraitzen dugu; gainera, Taldeak Europarako Century modeloko karrozeriak fabrikatzeko garrantu duen estrategia finkatu da.

Bere produktuen gaman Irizar i6 gehitu duen azken produkzio planta Maroko izan da. Merkaturatze hori bat dator bezero batzuek kalitatearen aldetik lehiakideengandik bereizteko izan dezaketen aukerarekin, bai herrialdeko linea nagusietan, horietako asko Europa erdialderaino joaten direlarik, bai nazioarteko turismo operadoreetan.

Irizar South Africa

Urte ona izan du, 70 autokar baino gehiago saldu baititu Premium autokarren segmentuan, eta datozen urteetarako aurreikuspen onekin jarraitzen du.

Irizar Asia Pacific

Merkatu hauek Irizar Taldearentzat duten garrantzia ikaragarri handia da eta, horregatik, Century modeloko lehen autokarra aurreko banatzailearen eskutik Australian lehorreratu (2008) eta zazpi urte igaro eta gero, Irizar Asia Pacific izenarekin ezarri da ofizialki.

Irizarrek merkatu horretan egiten dituen salmentak urteko 100 autokar inguruak dira.

Irizar TVS India

Urte honetan India behin betiko atera da Taldetik, bertan tokiko bi bazkiderekin joint venture baten bitartez presente egon eta gero. Erabakiaren arrazoiak da negozioa Taldean marka indartzeko garrantu ari den gaur egungo estrategiatik guztiz kanpo zegoela.



Irizar Taldea

Dibertsifikazio industrialaren emaitza diren enpresak



Hispacoldentzat egonkortasunaren urtea izan da, bere merkatu naturaletan kuotak hobetuz eta trenbideetako proiektuak garatzen kontzentratuta, horien eskaera zorroa nabarmen handitzen ari baita datozen urteetarako.



Hazkunde handia, Europako kuoten igoeragatik eta Asiako hego-ekialdeko esportazioengatik. Singapurren erreferentzia izaten jarraitzen du, mila hiri autobus baitaude bere sistemekin hornituta.

Urtean zehar dedikazio handia eskaini zaie I+G proiektuei, trenen sektorean presentzia finkatzeko irisgarritasun eta bidaiarientzako ateen sistemekin.



2014a urte ona izan da neurri handiko eguzki instalazio fotovoltaikoen inbertitzailen dibisioarentzat, eta arlo horrek hazkunde handiak emango dizkio Jemari datozen urteetan.

Brasil, Mexiko eta AEBko presentzia aukera berriak sortzen ari da Jemarentzat, bai berriztagarrien sektorean bai iturri aurreratuen sektorean.

Jema gaur egun erreferentzia da mundu osoan goi mailako teknologiako "proiektu bereziei" dagokienez.

Jema Elektronikak hazten jarraitzen du Irizarren eskutik, eta goi mailako teknologiako sistemak egiten dizkio autokar eta autobus elektrikoetarako.



Datikek lehendabiziko kontratu handiak lortu ditu informazio sistema adimenduen eta segurtasun sistemen arloan, Mexikoko eta Espainiako garraioan batez ere. Mexikokoak herrialde horretan Irizarren ohiko bezeroak diren neurri handiko operadoreekin lantzen dira.



Beste urte on bat Alconzarentzat, offshore itsas merkaturako motorren eta sorgailuen jarduerari esker.

Petrolioaren prezioa jaitsi bada ere, zeina ontzi handietan inbertitzeko erabakiak atzeratzen ari den, sektorean aurreikuspen onak mantentzen dira datozen urteetarako.

Altuera handiagoko nabe bat eraiki da, diametro handiagoko eta tona gehiagoko motorrak fabrikatzeko ahalmenarekin.

Halaber, Alconza ahaleginak egiten ari da I+Garen arloan, Tentsio Ertaineko bihurtailuak eta itsas aplikazioetarako ekipamenduak garatzeko. Helburua da potentziako transmisio mekanikoko osagaiak eta elementuak ikertzea eta testatzea, itsas propulsiarako, iraungarritasun, kalitate eta jasangarritasun handiagoo lortzeko xedearekin.

Sektore hidraulikoa

Zentral hidraulikoen sektorean, Hierro uharteak energia berriztagarriekin bat egin du eta, zentral hidroelektriko berriari esker, gaur egun %100 baliabide naturaletatik lortutako energia elektriko hornitzen den lehendabiziko uhartea da (ura eta airea). Zentralaren lau sorgailuak Alconzak hornitu ditu.

Mugarri garrantzitsuak

Irizarren 125. urteurrenaren ospakizuna



Irizarren 125 urteurrenaren ospakizuna izan da 2014an zehar gauzatu diren ekintza guztien ardatz nagusia. Indar eta hazkunde handiko unean egonik, mundu osoan ospatu ahal izan dugu efemeridea, bezero eta hornitzaileekin, atzerriko lantegietako ordezkari laguntzaileekin zein Irizar Taldekoekin beraiekin, hainbat markarekin, banatzaileekin, Ormaiztegiko herriarekin, prentsa nazional zein nazioartekoarekin eta Irizarreko bertako pertsonekin eta erretiratuekin.

Eszenatoki nagusiak Irizarrek Ormaiztegin dituen instalazioak izan dira (Egoitza nagusia), baina baita urtean zehar mundu zabalean egondako azokak ere: Errusia, Australia, Frantzia, Polonia, Italia, Danimarka, UK, Brasil eta Irlanda.

FIAA azokak (Autobus eta Autokarren Nazioarteko Azoka) eta Cibeles Jauregiak (Madril), Sandtoneko (Hegoafrika) bulego eraikin moderno batekin batera osatu zuten hedapen zabal hori, eta ekitaldiak urtearen azken lanegunean amaitu ziren, Irizarrek Donostiako Kursaal auditoriumean egindako Batzar Nagusiarekin.

Ekintza guztietan sinbolismo hunkigarri ugari gertatu dira, Irizarren autokar historikoen desfile bat barne, zuzenean soprano baten ahotsaz lagunduta.

Historian zehar protagonista izan diren pertsonentzako omenaldiak ere izan ziren, batez ere sortzaile eta ekintzailearen omenez etorri zen Irizar familiarentzako.

Globoak askatzea, hainbat opera zati, dantza tradizionalak eta akrobatikoak tarteko, urtea pertsona askoren gogoan iraungo duen urte gisa igaroda.

Jose Manuel Orcasitasen hitzetan, "gaur egungo Irizar taldea urte horietako guztietako bidearen emaitza da, pertsona askoren egikera onaren emaitza, sortzailearengandik hasita, orain garenaren zimenduak sortu zituztenen emaitza. Haiek guztiak eta gaur egun Irizar osatzen dugun guztiak gogoratzeko eta eskerrak emateko ordua da. Eskerrik asko benetan

Irizar Asia Pacific - Irizar Australian ezarrita



Irizar Irizar Asia Pacific izenarekin ezarri da ofizialki Australian. Erabakiak sare komertzial propioa ezarri beharra ekarri du, baita salmenta eta saldu ondoko zerbitzua Taldeak herrialde hartan erosi dituen instalazio berri batzuetan barneratzea ere. Egoitza nagusi horietatik, Irizarrek eskualde osoko bezeroei emango die arreta, bereziki Australian eta Zeelanda Berrian,

Australian autokarraren merkatua oso zorrotza eta mugatzailea den arren, bezeroek eskatzen duten kalitateagatik eta zerbitzuegatik zein ezartzen diren araudiengatik, Irizarrek laurogeita hamar herrialdetan baino gehiagotan izanda lortu duen esperientzia zabalak aukera eman dio merkatu horretara ondoen egokitzen diren produktuak eta zerbitzuak garatu ahal izateko.

Merkatu horien espezifikazioek hainbat ezaugarri berezi dituzte, hala nola ibilgailuen zabalera, 2,50 metro, eta eskuinetik gidatzea.

Lehenbizikoz Errusiako azoka batean

Kolomnan egindako Expo Busen (Errusia), apirilaren 23tik 25era, Irizarrek Scaniaren eskutik parte hartu zuen lehenbiziko aldiz. Presentzia horrekin errusiar merkatuko ateak ireki dira eta etxearen balio guztiak hedatzen hasi dira, bezeroagarako orientazioan eta teknologiarik puntakoenen garapenean oinarrituta, errentagarritasunik eta fidagarritasunik handiena eskaintzeko, zerbitzurik onenarekin batera.



Enpresa berrikuntzaren saria



Euskal Enpresaren Gauaren urteko sarien XXIII. edizioa Fundación Empresa Vasca y Sociedad/Gizarte eta Euskal Enpresa Fundazioak antolatu zuen, Sabadell/GuiPUZCOANOREN babesarekin, eta agertokia Bilboko Guggenheim Museoa izan zen; bertan mundu ekonomiko eta instituzionaleko 300 ordezkari baino gehiago izan ziren, aurreko edizioaren irabazleei beren errekonozimendua erakusteko. Enpresa Berrikuntzaren Saria Irizarrentzat

Taldearen osasun onaren oinarrian dago azken urteotan enpresa berrikuntzarako politika indartsu bat hedatu dela, kudeaketara, teknologiarara eta produktura zabaldu dena, eta horrek guztiak Irizar marka bultzatzea ekarri du.

Marka

Markaren irudia bultzatuz

Urteurrenaren ospakizunean euskal erakundeen ordezkari zegoela aprobetxatuz, uztailean bezeroak eta haientzat sortutako Ormaiztegiko egoitza nagusiko instalazio berri eta modernoak inauguratu ziren, Ormaiztegiko instalazioen irudia bultzatuz. Creatio, showrooma eta autokarrak entregatzeko espazioa sortu izanak hobekuntza bikaina ekarri diote markari, eta instalazioak eta markaren eta produktaren indarra lotu ditu.

Ekitaldian Javier Muro eskultoreak Irizarrentzat propio diseinatutako eskultura desestali zen, eta 125. urteurrenaren ospakizunaren eta instalazio berrien inaugurazioaren sinbolo instituzional moduan mantenduko da. Egilearen beraren hitzetan: "Bere forma samurrekin, eskulturak hiru elementu kurbatu dauzka, mugimenduaren eta erritmoaren sentsazioa ematen diotenak. Mugimendu hori indartuz eskultura pixka bat makurtuta dago, eta horrek norabidearen, ibilbidearen intuizio bat iradokitzen du, beti aurrerantz, etorkizunari begira. Pieza garbia eta zehatza da bere kontzepzioan, eta modernotasunaren eta teknologiaren ideia areagotzen du. Hori guztia markaren ezaugarria den atzerako ispiluaren erreferentzia leunarekin eta forma erdizirkular indartsu batekin, zeinak, errepidearen erreferentzia kontzeptuala egiteaz gain, erritmo iradokitzaile eta pausatua ematen dion"



Irizar markako autokar integralak

Europar plazaratu eta hiru urteren buruan, Irizar marka autobus integralen erreferentzia izaten hasi da. Aurten Europar hazteko estrategiarekin jarraitu da, salmenta eta salmenta osteko sarean oinarrituta.

Testuinguru horretan, Frantziako eta Erresuma Batuko merkatuen beharrak asetzeko Irizar UK eta Irizar Autocarsez gain, eta Wanikirekin Polonian, DV BUS and COACHekin Beneluxen eta RINDELLekin Finlandian sinatutako akordioez gain, markak Alemanian eta Suedian hedatzen jarraitzen du, aurki banaketarako beste hiru hitzarmen sinatuko baititu.

Irizar Taldearen hiru autobus %100 elektrikoa errealitatea da dagoeneko

Irizar Taldearen teknologia duten lehen autobus elektrikoak entregatzen hasi direla aipatu behar da bereziki, eta orobat, taldearen etorkizuneko elektromugikortasunaren jardura hartuko duten lur-sailak erosi direla, Adunan (Gipuzkoa).

Irizarrek bete egin du autobus %100 elektrikoaren hiru unitateak zirkulazioan jartzeko erronka, bi Bartzelona hirian eta lehenengoa Donostian.

Mugarria iraunkortasunaren eta Europako merkaturako abangoardia teknologikoan kokatzearen alde egin genuen lehenbiziko estrategia berritzailearen barruan kokatzen da.

2014ko uztailean Irizarrek lehenengo unitatea entregatu zuen Donostian, markaren strategiaren barruan beste urrats bat eginez, lehenengo hiri autobus %100 elektrikoa bezeroei aurkeztu zienean.

Abuztuan eta urrian hurrengo biak entregatu ziren, Bartzelonako hirian, horrekin Zeus europar proiektuaren baitan autokarrak entregatzen zituen lehen enpresa europarra bihurtuta.

Hitzarmen komertzialekin batera, saldu ondoko sareak Europar hedatzen jarraitzen du. Duela gutxi laguntza azkarreko furgonetak gehitu dira UKn zein kontinentean, bezeroen eskakizunei in situ erantzuteko.

Hainbat gaitan produktuak optimizatzeko ahaleginak biderkatzen jarraitzen dugu, horien artean segurtasuna, kontsumoa, fidagarritasuna eta pisuaren murrizketa.

Euro VI modeloarekin pisu totala optimizatzeko eta banaketa hobetzea lortu da, Euro Varen mailak mantenduz, powertrainaren multzoaren pisuaren hazkundeak konpentsatuta. Hobekuntza horiek markak egin ohi dituen iraungarritasun saiakuntzetan balioztatu dira.



Irizar iZe dagoeneko errealitatea da, eta hiri mugikortasunera bideratutako iraunkortasunaren eta ekofizientziaren erreferentzia, hiriko garraioaren gaur egungo zein etorkizuneko beharrak asetzeko. Irizar iZe teknologia propioarekin garatutako lehen hiri autobus integrala da, enpresak merkaturako lerro estrategikoarekin bat eginda, hau da, bezeroengana hurbiltzeko eta IRIZAR markako autokar integralekin marka indartzeko strategiarekin bat eginda. Produktuaren iraungarritasunari buruz egindako saiakuntzen ondoren, Irizar iZe europar teknologiko autobus moduan aurkeztu da, fidagarria eta gure hirietan ibiltzeko prestatua, zero igorpenen plusarekin. Gainera, bere ezaugarriak autonomia handia, segurtasuna eta errentagarritasuna izanik, kostu operazionala hobetu egiten da.

Erantzukizun sozial korporatiboa

Iraunkortasunari buruzko berrikuntza

Taldeak mugikortasun iraunkorraren alde egin duen apustuaren fruitua da, eta hiri mugikortasuneko liderra izateko asmoarekin iritsi da, hirietan iraunkortasunaren eta ingurumenaren hobekuntzaren alde laguntzeko konpromiso irmoarekin.

Europar Batasuneko biztanleen %60 hirietan bizi delarik, kutsadura kentzea da hiriguneek aurre egin beharreko erronka handietakoa. Errekuntzako ibilgailuen zirkulazioa CO2 isurketen %40ren eta gainerako kutsatzaileen %70en erantzulea da. Autobus elektriko bakoitzarekin, bere bizitza ballagarrian zehar, 318,28 tonatan murrizten dira CO2 igorpenak erregai fosila erabiltzen duen autobus konbentzional batekin alderatuta, eta, aldi berean, independentzia eskaintzen du erregai fosilen goranzko prezioekiko.



Kutsadura akustikoa gero eta handiagoa da: Gaur egun, inoiz baino gehiago, garraio bide eraginkorrak, ekologikoak eta isilak behar ditugu; ingurunearekin atsegina eta errespetuz jokatu behar dutenak, eta hirietako pertsonen bizitza kalitatea hobetzen lagunduko dutenak. Taldearen iritziz, hiriak ez kutsatzeko erabakiak ezin du atzera bueltarik izan eta, hori dela eta, orain dela lau urte erabaki zen hiri autobus eremuan zuzenean zero igorpeneko autobus elektrikoekin sartzeko. Horregatik, eta kutsadura akustikorik sortzen ez duelako, seguru gaude Irizar iZe garraio ezin egokiagoa dela hirientzat eta bertako biztanleentzat.

Beste ezaugarrietako bat osagaiak birziklatzeko aukera da. Ecodesignen printzipioak barneratuz garatu da, autobusaren diseinuan ingurumen irizpideak ezarri. Sartu diren bateriak ere %99 birziklagarriak dira.

Proiektu sozialak



Irizar Taldeak munduan zehar dituen proiektu sozialak gero eta gehiago dira

Irizarrek urtero bi milioi euro baino gehiago ematen ditu bere ingurune soziala babesteko, jarduera solidario eta humanitarioen bitartez, pertsonen inplikazio argiarekin edo GKE-en bitartez.

Matrizeak bere inguruneari ematen dionaz gain, Irizarren partaidetza aktiboa duten proiektuen errebaso eginez gero, oso jokaleku desberdinetan kokatzen gara, hala nola Mexiko, Hegoafrika edo Tanzania.

Mexikon Irizarrek bost proiektutan du partaidetza aktiboa:

- “Puente a la salud comunitaria”, zeinak planta pilotu bat egokitze helburua duen, beharrezko ekipamendurekin, talde komunitarioak prestatzeko eta inkubatzeko, beren elikagaien garapena, berrikuntza, lanketa eta etengabeko hobekuntza bultzatzeko, horien artean amarantoa eta arrautza organikoak egonik.
- “ChildFund México”, emakume indigenentzako azpiegiturak eta prestakuntza lantzen laguntzeko, eskulanak egiteko eta autoenplegurako iturriak sortzea bultzatzeko.
- “Fundación Haciendas del Mundo Maya”, ekipamendua, prestakuntza eta egokitzapena eskaintzeko helburuarekin, melipona ezti ekoizteko eta hamaka bilbatzeko tailerrarako.
- “DIF Municipal El Marqués”, non laguntza ekonomikoa eta gauzetako dohaintzak ematen diren laguntza sozialaren beharrez egon daitekeen pertsonentzat, horien artean aulki gurgildunak, jostailuak, altzariak, kamionetak, janaria eta estalkiak.
- “Nutre a un niño”, Mexikoko landaguneetan haurren garapenera laguntzeko, ekintza sozialen, ekonomikoen eta ingurumenari buruzkoen bitartez.

Hegoafrikan, Irizar hirugarren adineko pertsonen egoitzak elikagaiz hornitzeko proiektuetan aritzen da. Irizarreko pertsonak elikagaiak banatzeaz gain, garbitasunerako gaiak eta premia-premiazko elementuak ere entregatzen dira.

Aurten Dove's Nest Foster Home zentroari ere eskola materiala eman dio, zuztegi horretako haurrek beraien heziketa segurtatzeko behar dituzten material eta liburuak izan ditzaten.

Irizarrek Tanzania duen partaidetza Munduko Medikuen erakundearen bitartez bideratzen da, eta osasun zentroetan pazienteek jasotzen dituzten zerbitzu sanitarioak hobetzera zuzentzen ditu bere ahaleginak, batez ere emakumei eta bost urte baino gutxiagoko haurrei dagokienez, eta zuzenean komunitateekin lan egiten du, familia plangintza, GIBaren prebentzioa eta giza eskubideak lantzeko, batez ere emakumeen arloan (genero indarkeria, behartutako ezkontzak...)

